

BLOGAREN SARRERAK 2

Denok dantzan



Orain dela hilabete batzuk, Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta, herriko gazteok elkarrekin zerbait antolatu behar genuela pentsatu genuen, eta koreografia bat asmatu genuen "Euskaraz bizi nahi dugu" leloaren inguruan. Batzuek koreografia asmatu zuten, beste batzuek musika aukeratu zuten, beste batzuek arropa... Denon artean, elkarri lagunduta, lan txukuna egin genuen; hori esan ziguten, behintzat, ikusi zutenek!!!! Bukaeran, jendea guregana hurbildu zen, eta denok elkarrekin dantzatu ginen.

1. Zer pentsatu zuten Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta?
2. Zer antolatu zuten?
3. Nola antolatu zuten?